

2025

ZINEMAGILEEN ARTEAN



قافلة بين سينمائيات

**Emakumeek
egindako
zinema
14. Karabana**

Maiatzak 26 - 30

Golem Zinemak
Azkuna Zentroa
Alhondiga Bilbao
Saioak
17:00 / 19:00 / 21:30
Sarrerak 3€



+INFO



www.kcd-ongd.org



www.kcd-ongd.org



"ZINEMAGILEEN ARTEAN"

14. KARABANA

Zinema eta genero-berdintasuna: egin beharreko bidea

Zinemaren munduan, genero-berdintasunak lortu gabeko helburua izaten jarraitzen du oraindik. Nahikoa da karteldegietara begiratzea konturatzeko emakumeek ez dituztela gizonen aukera berberak filmak zuzendu eta ekoizteko. Hala ere, badago emakumeek egindako zinema, eta Kultura Communication Desarrollon (KCD GG-KEEn) hala erakutsi dugu, 14 urtez, Egiptoko KlaketaÁrabe ekoiztetxearekin batera.

Denbora horretan, galdera hauek egin dizkiogu geure buruari: zergatik joaten dira emakumeak baino gizon gutxiago proiektzio horietara?, ez al zaie interesatzen emakume zinemagileen begirada?, ez da iristen gure publizitatea?, edo oraindik ez dugu erabat ulertzen berdintasunak zer esan nahi duen? Aurten, hobetzen ahaleginduko gara, emakumeek eta gizonek emakume zuzendari handi horiekin batera gozatzeko eta hausnartzeko aukera izan dezaten.

Zatoz eta parte hartu programazio bikain honetan:

- *A State of Passion*: herri palestinarrek Gazan pairatzen duen genozidioan murgiltzea.
- *Faruk*: gentrifikazioaren erretratua, Istanbul sutsuan.

- *Union*: AEBko borroka sindikalari buruzko dokumentala.
- *Black Box Diaries*: Japoniako sistema judizial eta sozial zaharkituaren aurkako salaketa sexu-indarkeriaren aurrean.
- *Ez da nire historia, guztiona da: Euskadiko etxeko eta zainketetako hainbat langileren erresistentzia eta aldarrikapen istorioen film laburra.*
- *My Favourite Cake*: Irango fikzio hunkigarria, zahartzaroko samurtasunari, bakardadeari eta askatasunari buruzkoa.

Gogoeta egitera eta hunkitzera gonbidatzen zaitugu, axolagabe utziko ez zaituen **egile-zinema** honekin.

J. Carlos Vázquez Velasco

Zuzendaria

Kultura Communication Desarrollo "KCD" GGKE

Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia

"ZINEMAGILEEN ARTEAN"

14. KARABANA

Egunak: maiatzaren 26tik 30era

Lekua: Golem zinemak - Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao

Saioak: 17:00 / 19:00 / 21:30

Prezioa: 3,00€ saioko

EGITARAUA

26 ASTELEHENA

17:00, 19:00, 21:30

- **A STATE OF PASSION. Carol Mansour & Muna Khalidi**
Dokumentala. Palestina, 2024, 92 min. Jatorrizko bertsioa ingelesez eta arabieraz; azpтитuluak gaztelaniaz eta euskaraz.
2024: Cairo International Film Festival – Dokumental Onenaren Epaimahaiaren Sari Bereziaren irabazlea eta Film Arabiar Onenaren irabazlea.

Genozidio baten aurrekaririk gabeko izugarrikeriak ikusi ondoren, gerrako zirujau bat Gazatik aterako da, justizia egiteko eta kontuak emateko dei eginez.



19:00 etan. Gonbidapena dutenentzako saioa (eskatu hemen: www.kcd-ongd.org / info@kcd-ongd.org)



Proiektzioak foroko gune bat izango du, eta bertan **Carol Mansour** zuzendari palestinar-libanoarrak eta osasun politketan aditua den eta garapen sozial eta sanitarioan 34 urte baino gehiagoko ibilbidea duen **Muna Khalidi** libanoa-



rrak hartuko dute parte ekitaldian. **Leyre Otaegi** nazioarteko kazetariak eta *Lola-Mora Producciones* elkartearen sortzaileetako batek dinamizatuko du foroa.

*Keinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua egongo da.

27 ASTEARTEA

17:00, 19:00, 21:30

• **FARUK. Asli Özge**

Fikziozko dokumentala. Turkia, Alemania, Frantzia, 2024, 97 min. Jatorrizko bertsioa turkieraz; azpitituluak gaztelaniaz.

2024: Berlingo Nazioarteko Zinemaldiaren 74. edizioa – Panorama Sailean FIPRESCI Sariaren irabazlea

Zinemagile baten alabak Faruk aitaren Istanbulgo apartamentu-eraikinaren berehalako eraispena dokumentatu du. Farukek 90 urte baino gehiago ditu, eta gero eta protagonismo handiagoa du.



19:00etan. Saio honetan, **Asli Özge** zuzendari turkiarra izango dugu, Turkiako hirien aldatetxei eta belaunaldien arteko gatazkei buruzko istorioak kontatzen dituenak. **Alicia San Juan** kazetariak, irrati eta telebistan ibilbide profesional luzea duenak, eta gaur egun 'Más Que palabras' Radio Euskadiko asteburuko magazineko taldeko kidea denak, dinamizatuko du foroa.



*Keinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua egongo da.

- **UNION. Brett Story & Stephen Maing**

Dokumentala. AEB, 2024, 104 min. Jatorrizko bertsioa ingelesez; azpigituluak gaztelaniaz eta euskaraz.

2024: Sundance Jaialdia – Epaimahaiaren Sari Bereziaren irabazlea; 2024: Gotham Independent Film Awards – Dokumental Onenaren Sarirako izendatua

Staten Islandeko (New York) Amazoneko lehengo eta egungo langile-talde batek desafio egin dio munduko enpresarik handienetako bati sindikatzeko borrokan.



19:00etan. KCD GGKEk aurkeztutako saioa; Zoom bidez **Brett Story** zuzendari kanadarra izango dugu.

*Keinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua egongo da.

- **BLACK BOX DIARIES. Shiori Ito**

Dokumentala. Japonia, AEB, Erresuma Batua, 2024, 102min. Jatorrizko bertsioa ingelesez eta japonieraz; azpigituluak gaztelaniaz eta euskaraz.

Oscar sarien 97. Edizioa 2025 – Film luze dokumentalik onenaren sarirako izendatua; BAFTA 2025 sariak – Dokumental Onenaren Sarirako izendatua; Sundance Jaialdia 2024 – Epaimahaiaren Sarirako izendatua – Dokumentala (World Cinema); 2024: National Board of Review (Kritikari Iparramerikarren Elkarte) – Urteko Dokumental Onenatarako izendatua

Shiori Ito kazetaria berari egindako sexu-erasoaren ikerketak ausartean murgilduko da, erasotzailea auzipetzeko saioak gertagaitz batean. Haren bilaketa kasu enblematiko bihurtuko da Japonian, agerian utziz herrialdeko sistema judizial eta sozial zaharkituak.



19:00etan. Marta Dolado Zuzenbide penalean eta genero indarkerian espezializatutako abokatua eta Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko parte-hartzailea izango da saioan. Foroa **Anne Gareak** dinamizatuko du, Kazetaritzan lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Radio Bilbao - Cadena SER irratiko albistegietan erredaktorea.



**Keinu-hizkuntzako interpretezerbitzua egongo da.*

30 OSTIRALA

17:00, 19:00, 21:30

- **NO ES MI HISTORIA, ES LA DE TODAS. Itxaso Díaz**
Dokumentala. Euskadi, 2025, 9 min. Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz.

Etxeko eta zaintzako hainbat emakume langilek beren bizitza-historiak partekatzen dizkigute, eta, hamarkadak eta kilometroak izan arren, sektore horretan errepikatzen dira. Ikusezin, klasismo, arrazakeria, matxismo, eskubiderik ez izatearen... historiak, kolektiboki interpelatzen gaituztenak eta zaintzak sozialki antolatzeke premia agerian uzten dutenak.

- **MY FAVOURITE CAKE. Maryam Moghadam & Behtash Sanaeeha**

Fikzioa. Iran, Frantzia, Suedia, Alemania, 2024, 97 min. Jatorrizko bertsioa arabieraz; azpтитuluak gaztelaniaz.

Berlingo Nazioarteko Zinemaldiaren 74. Edizioa 2024 – Nazioarteko Kritikaren FIPRESCI Saria 74. eta Epaimahai Ekumenikoaren Saria; Cabourgeko Zinema Erromantikoa-ren Jaialdia – Epaimahaiaren Sari Nagusia; Valenciennesko 2. Zinemaldia – Errebelazio Saria eta Kritikaren Saria;

Montreuilgo Jaialdia – Ikusleen Saria; Pass Culture – Gazteen Gogokenaren Saria

Mahinek 70 urte ditu, eta Teheranen bakarrik bizi da, senarra hil zitzaionetik eta alaba Europara joan zenetik. Arratsalde batean, tea hartzeko lagun batzuekin elkar-tzen denean, errutina bakartia apurtu eta maitasun-bizi-tza biziberrituko du.



19:00etan. Saio honetan ***No es mi historia es la de todas*** filmaren inguruko foro bat izango dugu.



Ines Herreros kazetariak dinamizatu-ko du foroa, egun *Otras Luces* elkarteko komunikazio arduraduna eta Kazetarien Euskal Elkargoko batzordeko kide den ka-zetariak. Besteak beste, **Itxaso Díaz**, film laburraren euskal zuzendaria, elkarriket-atuko du, **Pili Gil** eta **Yolanda Hurtado**, *Trabajadoras No Domesticadas* elkarteko ordezkariekin batera.



*Keinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua egongo da.

